

## Hau gizon bat bada



### ***Hau gizon bat bada***

Jatorrizko izenburua: *Se questo è un uomo*

Egilea: Primo Levi

Itzultzailea: Mikel Irurtia

Argitaratze urtea: 2011

Argitaletxea: Alberdania

### MIKEL GARMENDIA

Lager edo kontzentrazio-esparru baten barruan bizi izan zuen infernua kontatzen digu Primo Levik *Hau gizon bat bada* eleberrian. Berak esanda dakigu esperientzia hura bizi ezean ez zuela sekula idatziko eta gaineratzen digu "liburu hau idazterakoan hizkuntza bare eta soila erabili dut, ez biktimaren arranguratia, ez mendekatzailearen sumindua: zenbat eta objektiboagoa izan, nire hitza orduan eta sinesgarriago eta eraginkorragoa izango zela pentsatu nuen..." Eta formaz ere berdin jokutzen duela esan behar, lehenengo irakurraldian sartzen zaizkigu zuzen eta garden liburuko esaldiak buru-bihotzetan, eta hori euskaraz ematen bete-betean asmatu du Mikel Irurtia itzultzaileak bere bertsioarekin: erraz, lehenengotik, segida guztiz natural batean irakurtzen den bertsioa eskaini digu.

Asko idatzi da Bigarren Mundu Gerrari buruz, era askotara, eta ikuspuntu txoil desberdinetatik. Primo Levik berak bizitako esperientziaz, geroaz, zergatiaz eta abar jakin nahi duenak aski du eleberriaren eranskin gisa atzealdean datorren elkarrizketa benetan interesgarria irakurtzea eta bertan ematen digu, gainera, liburu honen planteamenduaren, Primo Leviren kezka nagusiaren klabea. Honela dio amaieran: "Eta, finean, agian halaber eragin zidan neure kideengan eta neure baitan beti, baita egun ilunenetan ere, gizonak eta ez gauzak ikusteko temati gorde nuen borondateak, eta, horrela, lagun asko hondoratzeko espiritualera zeramatzen beharamendu eta etsipen guztizkoari ihes egitekoak". Era berean dio goraxeago: "Beharbada halaber lagundu zidaten giza gogoari buruzko jakin-minak (inoiz urritu ez zenak)..."

Zentzugabea litzateke planteatzen hastea Auschwitzeko baina infernu gogorragorik izan den, dagoen, egon daitekeen eta abar. Utz dezagun kontua infernua infernu dela, edo zuloa zulo. Eta zuloaren tamaina gorabehera, bat zuloan dagoenean bere buruarekin nola jokatu, bere kideekin nola jokatu, bere borraroeekin nola jokatu, hortxe dago kokka. *Hau gizon bat bada* eleberria altxor bat iruditu zait alde horretatik, milaka "autolaguntza" liburu baino askozaz ere gizatiarragoa, gertuagokoa, egiazkoagoa. Kirmen Uribek "Bitartean heldu eskutik" erakutsi zigun bezala, Primo Levik bizitza osoan gogoan ondo sartuak eramateko moduko klabeak ematen dizkigu bere eleberri gogor bezain on honetan.